

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

APODAKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea Apodakako herrian ehiza esparrua eratzeko

Apodakako Administrazio Batzarrak ehiza esparrua (matrikula: VI-10201) berritzea erabaki du. Ehiza esparruaren titularra aipatutako administrazio batzarra da, jabe taldearen ordezkaritzan.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera horri, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten. Ulertuko da isilbidezko baimena eman dutela iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, hamabost egun balioduneko epean, kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek, eta administrazio batzarrak baimena izango du ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Apodaka, 2019ko apirilaren 12a

Lehendakaria

JOSÉ LUIS GONZÁLEZ DELGADO